



Local Azoka, Donostiako tokiko produktuen merkataritza indartzeko ekimena

Ostiral honetan, Azaroak 4, tokiko 13 ekoizle eta establezimenduek, barazkiak, kontserbak, gozokiak, artisau garagardoa, gaztak edo txokolateak bezalako produktuak eskeiniko dituzte

Dario Parada sukaldariak (Sukaldean) bi showcooking saio egingo ditu Donostiako pintxo-en elaborazioari buruz.

Datorren ostiralean, azaroak 4, Donostiako Boulevardean “Local Azoka” edo Tokiko merkaturaren beste edizio bat ospatuko da, Sustapen Ekonomikoko zinegotzigoak, Donostia Sustapenaren bitartez, Gipuzkoako Ostalaritza elkarteak, San Martin merkatua eta Gipuzkoako Merkataritza elkartearekin lankidetzan antolatorikoa. Tokiko merkataritza eta ostalaritza indartzeko asmoz.

09: 00etatik 18: 30era, Donostiako 13 establezimenduk beren tokiko produktuak eskainiko dituzte Donostiako Boulevardean jarriko den karpan. Horrela, bisitariak, besteak beste, esnekiak, baratzeko produktuak, barazki ekologikoak, ahatearen eratorriak, gozokiak, kontserbak, artisau garagardoa, sagardoa edo txakolina erosi ahal izango dituzte.

Marisol Garmendia, Sustapen Ekonomiko eta Enplegu zinegotziaren arabera, “ekimen hau urte osoan zehar egiten ari garen beste ekimen batzuei gehitzen zaie, hala nola Altzako Tokiko Produktuen Merkatuei edo Gabonetako Azokari, Gabonetan inauguratuko dena. Kasu guztietan, gure merkataritzaren aldeko apustua sendoa da, gure ostalaritza eta ekoizleak ikusarazteko, kalitate handiko produktuei balioa emateko eta merkaturatze aktiborako aukera eskaintzeko”.

Gainera, egunean zehar, txakolina eta sagardoa dastatzeko aukera izango da, Dani Cormanen eskutik, 13.00etan eta 14.00etan. Aldi berean, 11.30ean eta 17.00etan, showcooking-eko bi saio izango dira Donostiako Sukaldean jatetxeko Dario Paradaren eskutik.

1.300 kupoi emango dira, 4 euroko deskontuarekin, Local Azokako salmenta-postuetan erabiltzeko, 8 euroko edo gorako erosketetan. Karpa berean, showcooking saioetan, 4 euroko 200 kupoi banatuko dira bertaratutakoen artean, egun horretan bertan San Martin kaleko 45. zenbakian dagoen Sukaldean establezimenduan trukatzeko. Kasu honetan ere, gutxieneko kontsumoa 8 eurokoa izango da.

Local Azokaren batera, San Martin Merkatuan, bertako produktuari lotutako hainbat jarduera ere egingo dira, eta goizean zehar, adibidez, merkatua eta instalazioak ezagutuko dituzten ikasleen bisita ere jasoko da.